

VIII. GAZTEZULO BIDEO LEHIAKETA

Hiru, bi, bat... filmatzen!

Hemen da **GAZTEZULO VIII.**
BIDEO LEHIAKETA

Istorioak irudi bidez kontatzea
gustuko baduzu, hasi errodutzen!

Lanak entregatzeko epea
apirilaren 7an zabalduko dugu
eta **maiatzaren 26an** itxi.
Ondoren, epaimahaikideak
lanean jarriko ditugu. Maiatza
bukieran jakitera emango
ditugu irabazleen izenak eta
ekaineko sari banaketa
ekitaldian hainbat sorpresa
izango dira.

Hartu kamera!
Sari potoloak
dituzu zain!



BABESLEA

AKZIO
FUNDazioA

BIDEO LEHIAKETA

Istorioak irudi bidez kontatzea gustuko baduzu, hasi errodazten!

• NORK HARTU DEZAKE PARTE?

16 urtetik gorako gazteak. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko balitz, ezinbestekoa litza-teke guraso edo tutoreen baimena izatea.

• ZE BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE LANAK?

Aurkeztu diren bideoek aurten errodatuak, originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

• IRAUPENA

Gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutu (kredituak barne).

• GAIA

Nahi duzuna kontatu dezakezu! Mota guztietako istorioak biltzen ditugu, abenturak, amodioa, misterioa, beldurra, drama, komedia... Animazio filmak ere onartzen ditugu! Irudimena askatu mugarik gabe!

• HIZKUNTZA

Bideoak hizkuntz edukiren bat badu (ahotsa, musika, elementu grafikoak...) EUSKARAZ izan behar du.

• LANAK ENTREGATZEKO EPEA

Bideoak **apirilaren 7tik maiatzaren 26ra** bitartean aurkeztu behar dira, eguerdiko 12:00ak baino lehen.

• BIDEO KOPURUA

Pertsona edo talde bakoitzak nahi beste lan bidali ditzake.

• TEKNIKA

Edozein teknika eta estilo erabilitako bideo-lanak onartuko ditugu.

• FORMATUA

.mov eta .mp4 formatuan bidalitako bideoak onartuko dira.

• ERANTZUKIZUNA

Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukiaren arduraduna dela.

• ERREPRODUZKIO ETA ZABALKUNDERAKO ESKUBIDEAK

Onartutako bideoen egileek GAZTEZULOrri uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreproduzio-eskubideak. Antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea; batetik, giza eskubideen urraketa, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu faltak adierazten duten lanak eta bestetik, aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dutenak ere.

• NOLA PARTE HARTU?

Gaztezulo.eus webguneko 'Bideo Lehiaketa' atalean topatuko duzuen formularioa bete. Bertan, taldearen izena, taldekideen izenabizenak, herria, kontaktua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira, besteak beste.

Bideoak WeTransfer bidez (**wetransfer.com**) bidali behar dizkiguzue **galdizkaria@gmail.com** helbidera.

Ekainaren 6ko 12:00ak bitartean, ikusleen botoak eta iruzkinak jasoko dira.

Jasotako bideoak **GAZTEZULO**ren YouTubeko kanalerara igo eta gaztezulo.eus webgunean publikatzen joango gara. Beraz, zenbat eta lehenago bidali, **Ikuslearen Saria** irabazteko aukera gehiago izango dituzue.

• EPAIMAHAI

Hiru adituk osatutako epaimahaiak lanak ikusi eta baloratu dituzte kalitate tekniko, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta.

2017ko edizioan **Gaizka Izagirre** zinema kritikariak, **Urtzi Urkizu** Berriako kazetaria eta Zurriolako Butaka saioaren zuzendariak eta **Bea Narbaiza** EHuko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate saileko irakasleak osatuko dute.

• SARIAK

1. SARIA:

Bideo onenaren egileak **1.200 euroko saria** jasoko du*.

2. SARIA:

Bigarren bideo onenaren egileak **300 euroko saria** jasoko du*.

IKUSLEEN SARIA:

gaztezulo.eus webgunean **ekainaren 6ko 12:00etan** ikusleen boto gehien dituen lanaren egileak hainbat produktuz eta **GAZTEZULO** materialez osatutako opari sorta bat irabaziko du.

**Ogasunaren legediaren arabera, sariei dagokien PFEza atxikiko zaie.*

Lan sarituen arduradunak (edo ordezkariaren bat) ekainean egingo den sari banaketara aurkeztu beharko dira (leku eta eguna zehazteko daude oraindik). Aurkeztu ezean, antolatzaileek eskubidea izango dute ondorengo puntuaziorik onena duen lana saritzeko.

